

1 646. Zaldivia. Sobre el estado de amancebamiento en que viven algunas personas en ésta Villa y posterior prisión de algunas mujeres por éste motivo». Ordiziako udal artxiboan, beste zerbaiten bila zebilela, azalpen hori zuen dokumentua topatu zuen Mikel Urteaga Azkuek, eta bere arreta bereganatu zuen. Artxiboetan ibili zalea da Urteaga, eta Zaldibiako udal langilea. Hasieran kostatu egin zitzaion XVII. mendeko eskuz idatzitako dokumentua ulertzea, idazkerara eta letra motara moldatu behar da begirada dokumentu zaharrak irakurtzeko orduan. Baina, behin bista horretara jarria, harrituta eta larrituta utzi zuen edukia topatu zuen: 1646. urtean, Juan Martinez Nazabalek, Zaldibiako alkate eta epaile arrunta zenak, epaiketa bat jarri zuen martxan herriko hamar emakumeren aurka. Delitua? Garaiko jendartearen begietara desagoki, bekatuan edota eskandaluzko egoeran bizitzea. Kasu guztietan, egoera desberdinak tarte-ko, ezkondu gabeko emakumeak ziren. Eta hamarretik sei ardatzean aritzen ziren lanean, lihoa iruten.

Urteagak topatutako dokumentuak zehazten duenez, alkateak aditzera ematen zuen



EMAKUMEEN BEKATUA

Hamar emakume epaituak Zaldibian, 1646an, «eskandaluzko» egoeragatik

 **HISTORIA** / Amagoia MUJKA TELLERIA

1646ko ekainean Zaldibiako hamar emakume epaituak izan ziren. Herriko alkateak akusatu zituen. Haien delitua? Garaiko jendartearen arabera desagoki, bekatuan eta «eskandaluzko» egoeran bizitzea. Guztiak ziren ama bakarrak eta, gehienak, iruleak.

herrian bazirela “desagoki” bi-zi ziren emakumeak, «ezkon-
duta egon gabe sexu-harrema-
nak izanez, alegia». Egoera
«onartezina» zela uste zuen,
«iraingarria Jaungoikoaren-
tzat, justiziarentzat eta euren

begiekin ikusi behar izan zu-
ten guztientzat». Hartara, al-
kateak, «hain delitu kaltega-
rriak zigorrik gabe gera ez
zitezen», kasu bakoitzaren in-
guruko ikerketa egiteko agin-
du zuen.

Goiko irudian, Alaitz
Sarasola eta Mikel Urteaga
Azkue. Lehenak, bertso
sorta jarri dio gertaerari, eta
bigarrenak, dokumentu
historikoa topatu zuen.
Aitor KARASATORRE | FOKU

1646ko ekainaren lauan au-
toa jarri zuen Nazabalek Zaldi-
biako hamar emakumeren
kontra. Autoaren lehen orrial-
dean izendatzen dira emaku-
meok: Maria Arruitz Mendiola,
Maria Albisu, Maria Bautista
Agirre, Barbara Agirre, Maria
Ana Mendiola, Maria Bartzelo-
na, Maria Joanitz Iraola, Maria
Gartzea Jauregi, Katalina Iztue-
ta eta Margarita Eleizegi.

Emakume horien bizimo-
duaren berri jasotzeko, hu-
rrengo egunean, ekainaren
5ean, alkateak hiru herritar
deitu zituen testigu modura
deklaratzera, hirurak gizonez-
koak: Sebastian Aranburu,
Juan Aiestaran eta Martin Agi-
rre. Banan-banan pasatu ziren
hirurak epailearen aurretik,
eta bat etorri ziren beren esa-
netan: hamar emakume ho-
riek ezagutzen zituzten, Zaldi-
bian bizi ziren denak eta,
ezkongabeak baziren ere, gu-
txienez seme-alaba bana haz-
ten eta elikatzen ikusi zituz-
ten.

Testiguen esanak entzunda,
aipatutako herriko hamar
emakume horiek kartzelan
sartzeko agindu zuen alka-
teak. Dokumentuak zehazten
duenez, «ihes egingo balute
edo haiek aurkitzea posible ez
balitz, ondasunak bahitu eta
haien etxeetan zitazio eskaera
jarriko zuten, hiru egunen bu-
ruan herriko kartzelan ager zi-

IZENBURUA:
1646

DOINUA:
TXIRRITA HIL DALA / MANUEL NARRUK
ATZO ESAN DIT
EGILEA:
ALAITZ SARASOLA OLANO

1-Mila seirehun da berrogeita sei
urteko garagarria:
Zaldibin data seinalatua,
nahiz seinalatuak mila:
Martin Nazabal alkate jauna,
inor epaitzen abila,
pekatu usaian hasi izango zen
ama ezkongabe bila.

2-Hiru lekuko deitu zituen,
gizonezkoak hirurak,
sala zezaten zein emakumek
zun halako delitu bat,
ba al zen nesarik ezkondu gabe
hautsi zituena urak;
errukigabe bota zituzten
hamarren izen-deiturak.

3-Hamarrek preso hartu zituzten,
bai hartu ere gaiztotzat;
zergatik jakin gabe nozituz
espetxearen morrontzak,
juramentura derrigortuta
arauak ziren zorrotzak,
ta banan-banan egin zituzten
eskatutako aitortzak:

tezen». Abisu bat ere helarazi zieten: epe horretan baten bat agertuko ez balitz, «bando eta pregoien bidez» deituak izango ziren, herriaren aurrean lotsagarri utziz.

Garaiko dokumentuak jasotzen duenez, inongo bandoren beharrik gabe, egun pare baten buruan preso zeuden hamar emakumeak. Kartzelara sartu orduko adierazi zuten ez zutela gertatutakoa ulertzen, ez zegoela horretarako arrazoirik eta aske uzteko erregutu zuten. Edo, gutxienez, beren esanak entzuteko eta kontuan izateko eskatzen zuten.

Emakumeak ez zituzten aske utzi, baina beren testigantza emateko eskaera onartu zuten. Ekainaren 7an deitu zituen deklaratzera Juan Martinez Nazabal alkateak. Eta hamar emakumeek adierazitako horri esker iritsi da egunotaraino emakume horien ahotza, lehen pertsonan. «Zaldibiako kartzela publikoan, behar bezala juramentua egin eta egia esango zutela zin egin ostean, banan-banan deklaratu zuten honakoak esanez», azaltzen du dokumentuak.

HARAGIZKO HARREMANAK ETA BESTE
Barbara Agirrek 34 urte zituen eta ardatzean aritzen zen, lihoa iruten lanean. Sei eta zortzi urteko bi alaba zituen, «Zaldibiako Santa Fe parrokiako



On Martin Olano apaiz presbiteroarekin izandakoak». Kontatu zuen beste seme bat ere izan zuela harekin bi urte eta erdi lehenago, baina jaio eta gutxira zendu zela. Epaiketan esan zuenez, baziren zortzi hilabete apaizak eta berak elkarrekin hitz egin ez zutela, eta beste inorekin ez omen zuen haragizko harremanik izan.

Maria Bautista Agirre, 24 urtekoa eta ardatzean lanean aritzen zena. Bizpahiru urte lehenago, Tolosan neskame ari zela, «haragizko harremana» izan zuen Antonio Hernandosoro tolosarrarekin. Haurdun zegoela nabaritu bezain pronto, Zaldibiara itzuli zen. Behin bere jaioterrian zegoela, haurra izan eta, tamalez, urtea betetzerako galdu zuen. Kontatu zuen Hernandosoro ezkongabea zela harreman hura izan

Pentsatzekoa da Zaldibian XVII. mendean gertatutako epaiketa beste garai eta toki batzuetan ere gertatu zela.
Jon URBE | FOKU

zutenean, baina bi urte pasatzerako beste emakume batekin ezkondu zela.

Maria Albisu, 34 urteko nekazaria eta ardatzean ere aritzen zena. Seme eta alaba bana izan zituen Pedro Zinkunegi zaldibiarrekin; hamaika urte zituen alabak, eta zortzi semeak. Semea jaio eta urtebetera hil zen Zinkunegi. Orduz geroztik ez omen zuen «haragizko harremanik» izan beste inorekin.

Maria Bartzelona, 30 urte inguruko nekazaria. Lau urteko alabaren ama zen, Martin Etxeberria-Agirrerekin izandakoa. Ezkontzeko asmotan omen zeuden oraindik, eta ez zuen harremanik beste inorekin.

Mikel Urteagak egindako zehaztapenaren arabera, «Zaldibian hurrengo urteetan izandako ezkontzen zerrendan ordea, ez da Maria Bartze-

lona eta Martin Etxeberriaren artekorik ageri. Segur aski, beraz, Mariak ez zuen bere nahia betetzerik izan».

Margarita Eleizegik 33 urte zituen eta nekazaria zen. Bi urteko alabarekin bizi zen, Zaldibiako Pedro Aiestaranekin izandakoarekin. Beste alaba bat ere izan zuen harekin lehenago, baina bigarrena jaiotzeaz zela hil zitzaion. Ezkontuko zirela agindu ziolako izan omen zuen haurra, eta oraindik esperantza horrekin jarraitzen zuen.

Maria Juaniz Iraola-Agirre, 30 urteren bueltakoa eta ardatzean aritzen zena. Hiru seme-alabarekin bizi zen. Zazpi eta hiru urteko alabak, eta hamahiru hila-beteko semea. «Sebastian Aranburu testiguaren arabera, haietako bat Zaldibiako Santa Fe parrokiako apaiz presbiteroa izandako Juan Arruebarrena zenarekin izandakoa», jasotzen du autoak. Maria Juanizek ukatu egin zuen hori, hirurak Lazkaoako Esteban Argintzanorekin izan zituela esanez. Hamar urte inguru lehenago, beste alaba bat ere izan omen zuen Martin Aranburu beasaindarrarekin. Aranburuk, ordea, kendu egin zion eta berekin omen zeukan Beasainen.

Katalina Iztueta, 26 urteko nekazaria. Martin Etxeberria zaldibiarrekin bi seme izan omen zituen, baina biak hil zitzaizkion. Lau urterekin zaharrena

4-“Barbara Agirre da nere izena ta espetxean zergati? bi alabatxo ari naiz hazten ez okel ta ez tapaki, hirugarrena zendu zitzaidan ahul jaioa izaki, gure apaiza Martin Olanok haien berri ondo daki”.

5- “Maria Albisu naiz ardatzean egiten duena lanik, lehendabiziko alaba eta gero semea izanik, Zinkunegitar Pedro zendu zan, ezkongai segitzen det nik, eta ez daukat beste inorekin haragizko harremanik”.

6- "Hernandosoro jaun neskame, ni naiz Maria Bautista, gogoz kontrako harremanetan sufritu nuen ez pixka; handik ihesi haurra erditu nuen osasun gutxiz ta, besoetan hil zitzaidanetik bizi naiz baina erdizka”.

7-“Etxekoandre ta nekazari naiz, ni, Maria Bartzelona, nerekin Martin Etxeberria ezkontzekotan zegona, hori aginduta bera da haurdun utzi ninduen gizona, oraindik badet esposatuko nauen esperantza ona”.

eta zazpi hilabeterekin gaztee-na. Ezkonduko zirela hitzeman arren, «promesa hura bete gabe lapurtu omen zion birjintasu-na». Bi urte izango ziren berare-kin hitz egiten ez zuela.

Maria Gartzia Jauregi, 32 ur-teko nekazaria. Bizirik balego bi urte izango zituzkeen haurtxoa izan zuen Juan Murua zaldibiarrekin. Murua ez-kondua zen, eta herritik apar-te zegoen bide batean topo egin zuten gau bakar batean utzi zuen haurdun. Jaio eta zortzi egunera hil zen haurra.

Maria Arroiz Mendiola, 31 ur-tekoa eta ardatzean aritzen ze-na lanean. Itsasondoko Juan Iturriotzekin izandako lau urte-ko semearekin bizi zen. Iturrio-tzek ezkonduko zirela agindu omen zion Mariari, eta eman-dako hitza beteko zuen espe-rantzan, engainatuta izan omen zituen harekin «haragiz-ko harremanak». Iturriotz,«Ma-riaren gogoz kontra» berarekin gozatu eta denbora gutxira, Itsasondoko Mariana Urkiare-kin ezkondu zen. Gerora ez omen zuen gehiago harrema-nik izan; ez Iturriotzekin, ezta beste inorekin ere.

Mariana Mendiola, 30 urte ingurukoa eta ardatzean ari-tzen zena. Hiru seme-alaba izan zituen Martin Loinaz zal-dibiarrekin: zazpi eta ia lau urteko bi seme, eta bi hilabete-ko alaba. Loinazek ezkonduko

zirela esan zion arren, ez zuen emandako hitza bete, Mariana-ren etsipenerako. Aurrez, beste gizon batekin izan zuen hara-gizko harremana, haren izena oroitzen ez bazuen ere.

Epaiketan beren bizitzen be-rri modu publikoan eman eta gero, hamar emakumeek ida-tzi bat aurkeztu zuten. Sinatu gabe agertzen da, ez baitzeki-ten idazten. Bertan esaten zu-ten inongo arrazoirik gabe kartzelatu zituztela, aitorpe-nak hartu zitzaizkiela eta haie-tan ez zela zigortzeko moduko ezer aurkitu. Horregatik, guz-tiak libreki aske uztea eska-tzen zuten, edo gutxienez fi-dantza ordainduta.

Ekainaren 11n edo 12an, emakume guztiak aske utzi zi-tuzten, baldintza jarrita, epai-leak espetxeratzeko erabakia hartuz gero, bila joan behar izan gabe aurkeztuko zirela epailearen aurrera.

«HAU EZIN DA ARTXIBOAN GERATU»

2022an topatu zuen Mikel Ur-teaga Azkuek 1646ko Zaldibia-ko kasuaren dokumentua Or-diziako udal artxiboan. «Hau ezin da artxibo batean geratu» pentsatu, eta auto horren la-burpena eta transkripzioa eka-rri zituen euskarara. Artikulu forman argitaratu zuen “Zaldi-bia.org” atarian. Urteaga bea-saindarra da, baina Zaldibiako udal langilea. «Pentsatu nuen

Epaiketan beren bizitzen berri modu publikoan eman eta gero, hamar emakumeek idatzi bat aurkeztu zuten. Arrazoirik gabe kartzelatu zituztela eta libre uzteko eskatu zuten bertan

«Emakume horiek erabat babes gabe zeuden. Alkatea eta lekukoak gizonetzkoak ziren. Bistakoa da agintzen zutenak gizonetzkoak zirela. Aldiz, epaituak emakumezkoak ziren»

zaldibiarrek jakin beharko zu-tela zer gertatu zen. Beste leku askotan ere pasatuko zen, bai-na dokumentazio gutxi dago kasu horien inguruan. Horre-gatik garrantzitsutzat jo nuen kasuaren berri ematea».

Hari horri tiraka, 2022ko martxoaren 8an ekitaldi bere-zia egin zuten Zaldibiako pla-zan. Adin desberdinetako he-rriko emakumeen ahotsetan plazaratu zituzten XVII. men-dean epaituak izan ziren ema-kume horien testigantzak. Omenaldi txiki bat egin zieten mende batzuk lehenago epai-tuak izan ziren emakume haiei. «Engainatuak, jazarriak, bor-txatuak izan, eta guztia ezku-tuan eraman behar gainera. Be-ti gizonen mende, izan bikote, maitale, herrikide edo aginta-ri», nabarmendu du Urteagak. Emakumeen testigantzetan garbi ikusten da, era berean, haurren hilkortasun tasa altua zela garai hartan, emakume as-kok aipatzen baitute seme-ala-

ba txikien galera. XVII. mende-ko bizimodua ez zen samurra, are gutxiago emakumeentzat. Bortxatuak, engainatuak eta zapalduak izatea gutxi ez, eta gainera epaituak izan zirelako.

«Garai eta toki desberdine-tan gertatutako gauzak direla jakin arren, horrelako doku-mentu bat topatzeak errealita-te zaplazteko bat ematen dizu; bai, bai, gertatu zen eta hemen, gainera, Zaldibian. Pentsatze-koa da beste artxibo batzuetan ere egongo direla antzeko do-kumentuak, ez ezkutuan, baina jendeak ikusten ez dituela. Ga-rrantzitsua da gertaera hauen berri ematea».

Epaiketek eta epaien inguru-ko dokumentuek garai bakoi-tzeko jendartearen xehetasun asko ematen dituzte; zein zigor-tzen zen eta zergatik ulertzea garaiko bizimodura gerturatzeko modua da. Dokumentuak ikusita, bistakoa da 1646. ur-tean, Zaldibian, alboan gizonik izan gabe bizi ziren emaku-meak zigortzen zirela. «Emaku-me horiek erabat babes gabe zeuden. Alkatea eta lekukoak gizonetzkoak ziren. Bistakoa da agintzen zutenak gizonetzkoak zirela. Aldiz, epaituak emaku-mezkoak ziren. Bortxatzaileak, adulteriogileak, iruzurgileak, eurenak ere baziren haurrez arduratzen ez ziren axolaga-beak izanda ere, ez ziren seku-la epaituak izan eta ez zuten

8- “Maria Arroiz naiz ardatzean aritua jai ta aste, Itsasondoko Juan Iturriotzek behartu ninduen gazte, hitza emanda noski nerekin ezkonduko zela laxte, baina Mariana Urkia zuen handik gutxira emazte”.	9- “Margarita det izena eta Elizegi abizena, bizirik daukat alabatxo bat Pedro Aiestaranena, bigarren go hau jaiotzerako zendu zitzaidan lehena, ta ezkonduko ginela baina ondo promesa herrena”.	10- “Nerekin dauden umeen aita da Argintzanotar Esteban, Maria Juaniz naiz, bizi dana halamuzko egoeran: beste alaba bat det Martinekin izandako ibileran, kendu egin zidan eta ez dakit berriz ikusiko dedan”.	11- “Iztuetatar Katalina naiz, ezin det bizi kantari: bi ume izan ta biak zendu hara bizitzak zer sari, birjintasuna lapurtu eta kontu faltsuak ugari, noiz ezkonduko garen galdetu Martin Etxeberriari”.
---	---	---	---

horregatik kartzelaren itzalik ezagutu».

ALAITZ SARASOLAREN BERTSOAK

Duela aste pare bat Soraluzen izan zen Señora Bertso Eguna, eta bertan kantatu zuten Alaitz Sarasolak osatutako bertso sorta, “1646” izenekoa. Hain justu, Zaldibiako epaiketa dauka oinarrian Sarasolaren sortak. Señora Bertso Egunetik enkargua egin zioten gai librean bertso sorta bat jartzeko, eta berehala etorri zitzaion 1646an Zaldibian gertaturikoa, Mikel Urteaga Azkueri esker jaso baitzuen istorioa duela urte pare bat. Gertara zahar bati jarritako bertso berriak izanagatik, bertso zaharren traza daukate aleek, Sarasolak ahalik gehien gerturatu nahi izan duelako 1646an epaituak izan ziren Zaldibiako emakume haien ahotsera.

«Artxiboak arakatzuz gero, ziu-rrenik herri guztietan agertuko dira horrelako gauzak. Izugarria da emakume haiek zer nozitu zuten, zenbat ume hil zitzaizkien, nola bortxatu eta engainatu zituzten... Bertso sorta egiteko proposatu zidatenean, segituan etorri zitzaidan gaia. Agian balioko du beste herri batzuetan harra pizteko. Memoria poetikoa egiteak bere garrantzia eduki dezake, beste herri batzuetan ikertzeko gogo zirikatu eta auskalo, agian ikerketa gehiago jartzen dira martxan».

IRULEAK,
«EMAKUME
LIBREAK»

1646ko Zaldibiako epaiketan bada datu esanguratsu bat: epaituak izan ziren hamar emakumeetatik seik ardatzean lan egiten duten, lihoa iruten. «Garai hartan lihoa irutea iraultzailea izan zen. Liho asko irun omen zen Euskal Herrian garai hartan, eta horrek eman zien emakume askori diru pixka bat irabazteko era. Garai hartako beste ispilu bat da ikustea zenbat emakumek lan egiten zuten ardatzean. Egia da normalean baliabide asko ez zituzten emakumeak izaten zirela, seme-alabak bakarrik aurrera atera behar zituztenak. Hori ikusten da dokumentuetan», nabarmendu du Alaitz Sarasolak.

Jose Antonio Azpiatzuk “La historia desconocida del lino vasco” liburuan jasotzen duenez, lihoak Erdi Arotik XX. mendera arte euskal bizitza sozial eta ekonomikoan garrantzi handia izan zuen, bereziki ama ezkongabe askorentzat, garai hartan oso gaizki kontsideratuak baitzeuden eta lihoaren eta ehungintzaren mundua irtenbide duina baitzen haientzat.

Emakumeak presentzia juridikorik ez zuen garaia zen, edozertarako senarraren baimena edo sinadura behar zuen.



Velazquezen «Arakneren fabula» margolana, iruleen ingurukoa. Prado Museoa dago. WIKIMEDIA

Testuinguru hartan, lihoaren bidez emakume ezkongabeak protagonismoa hartu zuen. Lan horri esker, emakume askok posizio ekonomiko sozial eta ekonomiko jakina lortu zuten eta agintariek ez zekiten nola kokatu errealtate berri horren aurrean. XVI. mendearen amaieran “emakume libre” izena jarri zieten, estatus sozial garrantzitsua lortu zutelako. Garaiko gizartean emakumeak gizonaren mende zeuden eta iruleek arau hori hausten zuten.

Liho hazia edo *linaza* batez ere Portugaldik zetorren, eta euskal merkatariek hazi horiek ugari ematen zituzten. Lehengaia portuetan biltzen zen eta baserririk ezkutuenetan ere banatzen zen. Hazi horietatik datorren lihoa tratatzeko, euskal baserriak ehunak egiteko beharrezko makineriaz

hornitzen hasi ziren. Emakumeak egiten zuen lihoa, linaziaren ereindakotik hasi eta oihalak egin arte. Prozesua oso korapilatsua, gogorra eta neketsua zen. Emakumeari harreman sozial oso garrantzitsuak aktibatzeak aukera ematen zion, beste lankide batzuekin lan egiteko biltzen zelako.

Nikolas Ormaetxea Orixe idazleak (1888-1961) baserrietan gauez elkartzen ziren iruleez hitz egiten du bere obran. Kantuak, esamesak, ezkongaiak... Bizitza sozial oso bat zegoen lihoaren lanaren inguruan. Egunaren amaieran, gauez, “sorgin afariak” egiten zituzten emakumeek, gaztainak eta esne beroa janez. Historialariek jasotako emakumeen testigantza batzuen arabera, «haiek ziren gure zinema eta antzerkia».

12- “Ni naiz Maria Gartzia, oso gazte zaildutako neska, nahiz Juan Murua ezkondua zan, kontu hau gezurra ez ta: topo eginda haretzek haurdun utzi ninduen nahiezta, zortzi egunekin hil zan alaba bere sehaskan hauspezka”.

13- “Ni ardatzeko langilea naiz, Mariana Mendiola, bi seme eta alaba hazten ari naiz, ez dakit nola; Martin Loinazek maiz engainatu nau gezurra dariola, ni sartu naute kartzelan baina hark merezi du kaiola”.

14- Beraz, Zaldibin jaso zirenak, horra hamar testigantza, garai hartako emakumeen bizimodu gordin, latza; bost egunera aske uzteko ordaindu zuten fidantza, herriak haiek seinalatuaz luzatzen zuen behatza.

15-Hemen aipatu diren gizonak etxe, kale zein elizan, andrak zapaldu eta umeak zaindu gabeak bizitzan, bortxatzaileak, iruzurtiak, gizartearen gerizan, haiek ez ziren gure herrian inoiz epaituak izan.